

## Mende erdi

**E**femeride egokia izan zitekeen patxadazko atzera begirakoa egiteko. Diktadura, industrializazioa, ikastolak, autonomia estatutuak, departamendua, koofizialtasunaren lorpenak eta miseriak, Lizarra-Garazi... Auziak itxi barik egoteak ezinezko egiten du argilunez mintzatzea. Ilun derrigortuen eta debekatutako argien adierazpen askatasun murriztea bizi dugu.

Espainiak arrakasta nabarmenak lortu ditu: Lizarrako lezioak beretzat hartu eta Bushen aldia ezin hobeto probestu du (Putinek Txetxenian lortu duen legez). Eta independentismoak ez du lortu oldarrari neurria hartzea. Ondorioa argia da: sufrimenduaren/errepresioaren sozializazioa, ETAko militantetatik ezker abertzaleak nolabaiteko harremana daukan edozein arlotara. Eta Europaren legitimizazioa, azkenik. Aznar atzean utzita Espainiak Europako herririk ezkertiarrenaren fama dauka. Gorria hautsia baino lehen.

Diktadura egonkortu zenean abertzaletasun modernoa sortzeko gai izan ziren, 1968ko haize iraultzaileetan egokitzen asmatu zuten. Militarrek beren neurri baimendutako trantsizioan ere –eta are gerra zikineko urteetan– oldar armatua auzo eta herrietako behetik gorako lanarekiko modu paraleloan garatu zen. Estatu eratzeko zutabe sendo horiek kale egin zuten, horratik.



INIGO AZKONA

Sobietar inperioaren erorketari neurria berandu hartu (Lizarra, 98) eta New Yorkeko erasoen ondorioak iragarri ezinik, etsipenean murgildu da independentismoa –hala ere, kritikak kritika, borrokatzeko eta sufritzeko gaitasun harrigarria duten milaka lagunengatik aintzat hartu behar da–.

Duela mende erdi, hondoa jotako abertzaletasuna berreraikitzen asmatu zuten. Gaur 800 preso, Nafarroa-EAE inoiz baino urrunago eta gerrilla bideak ezinbesteko duen kanpoko babeserabat agortuta dago. Alde du Espainiaren izaera: Europako aberats berriaren konplexuarekin jarraitzen du, eta ondo dakizki bere demokraziaren mugak. Barneko nazioen arazoarekin Belgikak edo

Erresuma Batuak legez jokatzeko saiatu ordez, kuarteletako urduritasunaren berriak datozkigu behin eta berriz zeinen hauskorra den gogoratu bezain laster –bidenabar, behin eta berriz borroka armatuaren zilegitasun handiena emanaz–. Ibarretxeri argi utzi zioten eta atzera egin zuen. Hurrengoan, Espainiaren izaera ondo ezagututa –Eskozia? Groenlandia?– neurria hartuta izatea du independentismoak kanpoko erronka. Eta barnekoa, zailena: benetako indar metaketa. Iraganeko bizioak, hege-

monismoak eta matxokeriazko bular kolpeak bazter utzita, XXI. mendeko independentismoa berreraikitzea. ■

«  
Espainiak arrakasta nabarmenak  
lortu ditu: Lizarrako lezioak  
beretzat hartu eta Bushen aldia  
ezin hobeto probestu du  
»

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Aspaldiko legean. Orain kontrolbako ikastolak jomuga. Ezaguna

zaigu musika, oraindik Gure Egunkariaren kasuan isildu ez dena. Horrela hasi zen pieza hura. Lehenik prentsara igorri zuten ez dakit nondik bildutako akta baten berria, gerora gure egunkaria itxeko Aznarrek erabili zuena. Atxiloketak, torturak, kartzelatzekak. Badirudi prozesu bertsua martxan jarri nahi dutela ikastoletako egiturekin. Lehen ETA, orain Batasuna. Edozein alderdi politikok du bizi publikoaren arloko aztertze eta bere erara antolatze arduraren zereginen. Hori da hain zuzen eskatu behar zaiona. Eta nago,

## Baxatoxak

Batasunak Athletic, Reala, Alaves, Osasuna, Euskaltel, ETB, Iberdrola, Repsol eta erromako zubia-

ri buruzko iritziak, asmoak eta gogoak badituela, zenbait bilkuratan, beste askoren artean aipagai dituztenak direla horiek ere aktetako edukina, EAJ, PSOE, PP eta gainerakoak izango diren bezalaxe. Eta Batasunak horiei buruz planak eduki izanak guztiak gaizkile bilakatzeko baldin baditu, hasi daitezela ongizatearen izenean haien ondasunak izozten eta arduradunak atxilotzen, berdintasunean bizi gaitezela. Hain dramatikoak ez balitz darabilten dantza, irrigarria litzateke, astakeri erraldoien erresuman atxikitze modukoa. Erne goiari. ■